



Aretxagazeta



ANDRAMAIXAK02



Gemes edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18

Depilazio elektronikoa: patilak, bigotea, okotza • Depilazioa: argizari beroa eta hotza • Dekobiazba • Behin betiko makiak beka eta ezpainetan
Eguneko makiak: ezkontzak, ezkongak... • Azalaren garbiketa osoa: adinarekin eta zinuaren aurkakoa, hiltazba, aknea, shock (lifting-a)
Ondeko azazkak, natura naturalki anikua eta aplikazioa • Pedikura • Dieta personalizatuak • Betikoen tindaketa • Solariaren zeibizua ere badaukagu







Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



ATREBENTZIAEZPADA/ Zela juen die aurtengo Andramaixak? Ze baloraziño egingo zeuke?



INMA MIGUEL
Kultura teknikarixe

FELIX ALTUBE
Pilota taldeko kidie

GARIKOITZ ITURBE
Txosnetako arduradune

LARRAITZ IÑURRATEGI
Jai batzordeko kidie

MARTIN GARAI
Udaltzain burue

SALBA RODRÍGUEZ
Tabernarixe

Orokorrien ondo egon die-la esango neuke; iguel, igez baiño jente gutxituago. Beti jasoten dittugu kritikak eta argi itxi gure dot. Jai batzordie irekixe dala edozeiñek parte hartu daixen.

Pelota partidu polittek jokatuz zien Andramaixetan. Profesionalen partiduetan frontoia gaiñezka egon zan, eta herriko pilotari txikiñenek be animaziño haundixa euki euen.

Igez baiño jente gutxiago bueltau da oporretatik, eta egualdixek be larregi ez dauenez lagundu, oso jente gutxi ibilli da txosnetan. Andramaixak galtzen doiezela uste dot.

Jaixetarako herritar gutxi etorri dala uste dot. Maria-chixek arrakasta haundixe euki euen; beste ekintza batzuk, barriz, ez zien gure beste ondo urten egualdixaren kulpaz.

Oso jai lasaixek izen die eta ez dogu inongo arazoik euki. Jai egunetan udaltzain bakarra ibilli zan lanien eta ez euen aparteko lanik euki. Gauetan be jentia oso txintxo ibilli zan.

Herrittarrak baiño kanpoko jente gehixago ibilli da aurtun jaixetan, gaztetxuek, gaiñera. Neure ustez, Andramaixak tristurie emuten daue eta zerbait pentsau biherko litzake.

ANDRAMAIXETAKOONENA



ANDRAMAIXETAKODATUAK

1.500

EURO ORDAINDU ZAIE BARRAKEI ANDRAMAIXETAN

Iaz baino barraka gutxiago etorri arren, aurtun ere Udaletik diru laguntza jaso zuten jaietan gure herrian izateko. Hala ere, jende gutxi ibili zen. Datorren urtean zenbat etorriko dira?

500

LAGUN INGURU HERRI BAZKARIAN

Inoiz baino jende gehiago batuzen Andramaixa hirugarrenean plazan egin zen paella erraldoia jateko, 500 lagun inguru.

ANDRAMAIXETAKOTXARRENA



TXISTUAK GAZTETXOAK SOKAMUTURREAN 16 urtetik beherako gaztetxoek ezin izango zutela sokamuturrean parterik hartu adierazi zuten Kultura Sailak egitarauan, baina badirudi ez zegoela garbi. Bertan behera geratzekotan egon zen sokamuturra, ekintza zaintzera etorri zen ertzainak gaztetxo ugari ikusi zituen-eta kalean. /M.A.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



O R L A

Herriko plaza z/g ARETXABAETA

Jai giro polita Andra- maixetan, jende gutxi egon arren

Agur esan diegu oporrei eta Andramaixak ere urruti geratu zaizkigu. Hala ere, inoiz ez da berandu orduko gogora ekarri eta, argazkiekin bada ere, ondo pasatzeko.

Andramaixak etorritako moduan joan zitzaizkigun oporretako isiltasunean murgilduta. Aurten jende gutxi ibili dela entzun da, gustuko ekintzak, ostera, gainezka izan dira: pilota partiduak, Alboka taldearen kontzertua -euriaren erruz bertan behera geratu zena-, eta Los Pérez de Nochistlán mariachien ikuskizuna, esaterako.

HERRITARRAK, POZIK JAIKIN

Ez da samurra herritar guztien gustuko jaiak antolatzea, baina orokorrean pozik geratu ei ziren aretxabaletarrak aurtengo Andramaixekin. Umeek gura beste joko eta antzerki izan zituzten, eta nagusiendako kontzertu eta ikuskizunak ere ez ziren falta izan. Suzko erruberek ere aho zabalik utzi zuten bat baino gehiago, aurten inoiz baino politagoak izan dira-eta.



PELO PINTXO ETA 7, TXAPELDUNAK Jaiak hasteko, urtero moduan, Mus Txapelketa jokatu zuten. Aurten, gainera, bikote gutxiagok eman zuten izena; guztira, 43 bikote izan ziren nor baino nor. Norgehiagoka gogorrean ibili ostean, Pelo Pintxo eta 7 nagusitu ziren, Patxi eta Eugeniori irabazita.



Ikurrinari egindako agurrak eta alkateak botatako txupinazioak eman zieten hasiera Andramaixei.



UDALBATZA, MEZA NAGUSIAN Andramaixa Egunean meza nagusian parte hartzea tokatu zitzaion Udalbatzari. Alkateari lagun eginez zazpi zinegotzi hurreratu ziren parrokiara. Mezaren ostean, Deakazteluko bandaren emanaldia izan zen plazan; ez zen herritar guztien gustukoa izan, bandak txaranga itxura handiagoa zeukala eta...

IBARRA JATETXEA

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 70 60



Menua eta karta



Ausart zaitetz!

i rudi

ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA

Errekabarren 20, behea
ARETXABALETA.
Tel.: 943 79 80 90



Herriko pilotari gaztetxoek erakustaldi bikaina eskaini zuten Iturrigorri frontoian.



Ros anaiak nafarrek sekulakoak egin zituzten bizikletekin. Markel Uriarte larrinoarra ere tartean ibili zen.



UMEENDAKO, JOKOAK ETA ANTZERKIAK Umeak izaten dira jaietan protagonista nagusiak, eta halaxe izan da aurten ere. Gura beste joko izan zituzten lau egunean: gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak, zezen mekanikoa, motoak... Antzerkiak ere ez ziren falta izan, eta pozik hartu zuten parte umek Hortzmuga eta Hankagorri taldeen ikuskizunetan. Belorrieta kalean barrakak ere jarri zituzten, merke, gainera, baina oso jende gutxi hurreratu zen barraka-gunera.



GAZTEENDAKO, TXOSNAK Euskal presoak ere gogoan izan zituzten herriko jaietan. Aretxabaletako Euskal presoak Euskal Herrira Plataformak antolatutako manifestazioak gazte eta nagusiak batu zituzten herriko kaleetan. Gazteek, azken urteetan moduan, txosnen gunea izan zuten arratsaldean hasi eta hurrengo goizaldera arte. Andramaixa bigarrenaren kontzertua ere izan zen txosnen gunean: Zea Mays taldeak kantu eza-gunenak eskaini zizkien han batutakoei.



Barruko eta kanpoko lorategiak zaindu eta sortzen ditugu

Ureztatze-sistema automatikoak instalatzen ditugu

Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa: 943 79 78 45 eta 616 96 57 98

Haizea taberna

Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Gustoko giroa





Eguzkipean eserita, aho zabalik egon ziren umeak, Trufaldino eta Pantxinetaren joan-etorriei begira.




Datorren urterako paella handiagoa egin beharko dute, aurtengo jendetza ikusita...



GIRO EZIN HOBEA Andramaixa hirugarrena kolorez jantzita hasi zen. Koadrilek giro bikaina sortu zuten herriko kaleetan, eta txarangaren eta buruhandien laguntzarekin alaitasuna eta jai giroa izan ziren nagusi. Jaiak bukatzeko, Los Pérez de Nochistlán mariachi taldeak emanaldi bikaina eskaini zien aretxabaletarrei.

Arotz lanetan behar duzun guztia



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA




ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
**Lyonel
Arquero**

Dekorazioa:
**Soraya
Arquero**



GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

Eguneko menua

Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardurua da.



Z E R B I T Z U A K :

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru
etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,
etab.)

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA



Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa

2002 · 2003

Matrikula-epea irailaren 2tik 20ra

ingelese | frantsese | alemana

maila eta adin guztiak | eskolak goizez eta arratsaldez



belorrieta 4
20550 aretxabaleta
tel./faxes:
943 79 00 69
bulego ordutegia:
16:00 · 19:00


Euskara "txinoa" bada zuretzat ...eta euskara zurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,
txirrinduila, dulai...



**UDAL
EUSKALTEGIAK**
...

Ni txirrinduan
nabil.



HABEren dirulaguntzaz



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - 4, Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - 10, Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
Telefax-a : 943 79 92 62
leintzeuskalteg@terra.es

•Euskalduntze eta
alfabetatze maila
guztiak eta EGA.

•Bulego ordutegia: 09:00 - 13:00
15:00 - 19:00
•Matrikulazio epea: Irailaren 2tik 20ra.
•Bekatzeko sistemak eta diru laguntzak ditugu.
GALDEU!

Aretz

taberna




- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 6a / 91. zenbakia



ANDRAMAIXAK02



Gure Ametsa

Ezkontzak
Jaunartzeak
Enpresa bazkariak
Euskal janari tradizionala

Tel. eta faxa: 943 71 49 52
LEINTZ GATZAGA

ALKATEAREN AGURRA / Joxerra Agirreurreta

Datozen egunetan jai giruaz eta musikaz alaituko dira gure

herriko txoko eta bazter guztiak. Jaixak ate joka dittugu. Urteko tarte txarrak ahaztu eta sasoi heldu jaku gozau eta ondo pasetako.

Aurtengo jaixetan, betiko programak piperra eta gatz apurren bat eduki daixen, hainbat nobedade sartzen saiatu gara. Betiko moduen, programak umiak ez ditte ahaztuko. Horrez gain, helduak betiko txirrindulari karrera, mus txapelketia, herri bazkarixa, eta abar izango ditue. Bañe benetan nobedadie, aurten, gabeko suzko erruberak izango die.

Aprobetxau gureko neuke aukera hau despedirako be. Datorren urtien lau urte izengo die udaletxian hasi gitzena. Saiatu gara ahalik eta modurik jatorrenien eta fiñenian lan egiten. Heldu jaku beste batzuei lekue izteko sasoi. Hemendik animatean zaittuau bateon batzuk hurrengo udal ekipua osatu daizuen, eta herrirako lanian jarri zaittezien.

Jai eder honeittan ez nittuke ahaztu gureko gure presuak eta gurekin alaitasunian jai giruan egon ezin diren guztiak.

Besterik gabe, jai ederrak pasau eta topera gozau!



JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza 6

18:30 Raflen ezmila emanaldia Etxafleroekin jaien hasiera eta umeendako bonba japoniarrak

19:00 Dorletako santutegian Nobena

19:30 (Nobenaren ostean): Dorletan gazta eta ogia

22:30 Su artifizial ikusgarriak

00:00 Dantzaldia LISKER taldearekin



ANIMO, AURTEN ERE, MUTILAK!

Zapatua 7

09:30 Txirrindulari lasterketa XXIV. Dorletako Amaren Saria

14:30 Herri bazkaria

16:00 Umeendako jolasak

17:00 Siesta herrikoia

00:00 Kontzertua REVERENDO PARKER taldearekin

02:00 etatik aurrera: DISCJOKEY



JAN ETA GERO DANTZA!

Domeka 8

11:30 Etxafleroekin Otxandiokoei ongietorria

12:30 Meza Santua ESKORIATZAKO KORALarekin

13:30 LIZASO eta EGAÑA bertsolariak Dorletan

16:00 MUS Txapelketa Toki-eder elkartean

17:00 Pilota partiduak

20:00 ARAIAKO BANDArekin kalejira

22:00 Dantzaldia KAIXO taldearekin

OHARRA

Gatzagako Gatzis gazte taldeak, Udalaren laguntzarekin, aurtengo Andramaixetan txosna jarriko du, frontoian. Herritarren laguntza eskatu nahi dute lan-txandak egiteko eta guztien artean jaiak girotzeko.



Leintz Gatzagako
Udalak Andramaixa
zoriontsuak opa dizkizue
gatzagar guztioi.



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA

“Herritar guztiei esan nahi diet jaiak gogotik bizi eta ondo-ondo pasatzeko”

AINTZANE GARDOKI

Aurtengo Andramai-xak zinegotzi lanetan egingo dituen azkenak izango dira Amaia Oلابe. Herriaren alde lan egiteak merezi duela jakin du urteotan.

Bada herritasunik aurtengo Andramai-xetan?

Aurten, lehenengoz, suzko erruberak izango ditugu, herritarrendako erakargarriak direla irudituz zaigu eta. Bestetik, urtero domeketan egin den ziklismo lasterketa aurten zapatuan jokatu da, domekan Amabirjinaren eguna eta otxandiarren eguna delako.

Otxandiarrek ez dute inoiz hutsik egin.

Domekan ere hemen zango direlakoan gaude. Ofizialki ez dago harreman zuzenik bi udalen artean, baina gero eta otxandiar gehiago etortzen dira, oinez, gurera.

Herri txiki bateko jaiak prestatzea zaila da?

Ez da erraza, ez! Gure

nahia herritar guztiengana heltzea da. Horregatik deialdi publiko bat baino gehiago egiten du Udalak, herriko elkarte eta herritarren artean jaiak prestatzeko.

Eta zelako erantzuna jasotzen duzue?

Ezin kexatu. Iaz ez zen inor etorri batzarretara. Aurten, berriz, Gatzis gazteen taldeak eman du erantzun onena; herriko neska gazteekin batera hainbat ekitaldi prestatu ditugu; erretiratuen elkartearekin hilaren 15ean egingo den Erretiratuen Eguna antolatu dugu. Edozelan ere, ezin esan daiteke herritarrek deialdiei guztiz erantzun ona eman dietenik, baina kexatu ere ez gara kexatuko; izan ere, jaietan, ohituraz, elkarrekin hartuta dituzte zeregin batzuk: Toki-Eder elkarrekin mus eta briska txapelketak antolatzen ditu eta GUREL eta Sorginak taldeek herri bazkariko gertatze lanetan hartzen dute parte.

Zein da jaiak antolatzeko zailak diren helburua?

Herritar guztiengana



ume, gazte zein nagusi, jai onak egitea. Eta nahia baino gehiago, ametsa, herriko jaiak biziarazteko herritarren inplikazioa lortzea izango litzateke.

Azkeneko urteotan

herrietako jaiak asko aldatu direla diote askok.

Bat nator. Herri handietan nahiz txikietan giroa asko aldatu da. Taberna inguruetara mugatzen da ia giro guztia. Lehenago

“Berritasunen artean, suzko erruberak izango dira”

“Gure nahia herritar guztiengana heltzea da”

“Jaiak, lehen beste modu batean bizi ziren”

“Ez dakit diru gehiago gastatzerik merezi duen”

Gatzagako jaiak oso onak ziren; inguruko jende asko etortzen zen.

Zer zen orduan desberdina?

Ezin esan. Beste modu baten bizi izaten ziren oro-

korrean herrietako jaiak. Agian, Gatzagako jaiak opor osteko ia azkeneko jaiak zirelako-edo, jendea gogorekin etortzen zen. Zezena ere zergatik ez dagoen askok galdetzen dute oraindik, baina oso garestia da, ezinezkoa da.

Merezi du diru asko gastatzea jaietan?

12.000 euroko aurrekontua daukagu aurten ere, azkeneko hiruzpalau urteotako aurrekontu berbera. Urte batetik bestera bizi-modua garestitu egiten da, eta diru horrekin ezin da gauza askorik egin. Dena dela, herri guztietan jendearen erantzun eskasa ikusita, ez dakit diru gehiago gastatzerik merezi duen ere.

Zinegotzi lanetan bizi izango dituzun azken Andramai-xotan zer esango zenieke herritarrei?



Herriaren alde lan egiteak merezi izan duela, eta aurrerantzean ere merezi izango duela, denon esku dago eta herria eta herriko jaiak biziaraztea. Dena dela, orain, jaiak gogotik bizi eta ondo-ondo pasatzeko esan nahi diet gatzagar guztiei.

IHARDUN MULTIMEDIA KOOP. E.


Santiago kalea 12 20530 Leintz Gatzaga

Tel. 943 71 46 37 • Faxa: 943 71 30 03

www.ihardun.com



- Jatetxea
- 7 txabola guztiz prestatuta
- Urte osoan zabalik



Naturarekin bat eginik!

Informazioa eta erreserbak: 943 58 50 58 eta 617 78 74 32 LEINTZ GATZAGA

AMABIRJINAREN EGUNA GATZAGAN, OTXANDIARRAK PROTAGONISTA AMABIRJINAREN EGUNEAN

Sustrai sendoa du Otxandion "Gatzaga Egunak"

Otxandiarrak, urte askoan, urtero urtero etorri izan dira Gatzagara Amabirjinaren Egunean. Aurten ere geurean izango ditugu.



Ohituraren zergatia zein den jakin ez badakite ere, urteak joan urteak etorri, hutsik egin barik, otxandiarrak Gatzagan izaten dira.

AINTZANE GARDOKI

Gatzagara joateko ohitura zaharraz gehiago jakin guran, Otxandion batu ditugu Dolores Uribe, Javier Viteri eta Pedro Mari Ortiz de Zarate 'Txotxiko'.

Ez dakite nondik nora datorren ez eta noiztik dagoen bizirik Amabirjinaren Egunean Gatzagara joateko ohitura. "Gatzagara, lehenengo, lau urterekin joan nintzen, trenez", esan digu Doloresek. Orduetik hona,

61 urte pasatu dira. Zera diote Javierrek eta Txotxiko-k: "Geurean aitajaun-amandreak ere beti joaten ziren Gatzagara. 100 urte badira gutxienez. Gu, txikitik, asto-otzaratan sartuta joaten ginen. Gero, koskortu ondoren, beti oinez".

BIZIRIK DIRAUBEN OHITURA

Aurten, domekan da Amabirjinaren Eguna. Otxandioko plazan, urtero legez, goizeko zortzietan dute herritarrek hitzordua. "Domeka izanda jende gehiago animatuko den dudarik ez dago, baina aste-guna izanda ere, jendeak jai hartzen du lanean", esan

digu Txotxiko-k. "Lehen, herriko lantegiek lan-egutegia egiten zutenean Gatzagako Amabirjinaren Eguna gorritz jartzen zuten beti. Behin, herriko enpresa handienak Gatzaga Eguna egutegitik kendu zuten. Langileek protesta handia egin zuten. Hiru langile zigortu eta hiru egunerako etxera bidali zituzten. Baina azkenean lortu egin zuten berri-

ro egun hori gorritz jartzea lan-egutegian. Haiek, erretiratu ostean ere, Gatzagara taxian joaten ziren meza entzutera", gogoratzen du Viterik.

Meza entzun, herriko landetan elkarrekin bazkaldu eta pilota partiduak ikusi ondoren, erromeria handia izaten zen lehen Gatzagan: "Eta dantza bat edo bi egin barik ezin etxe-

ra joan. Lehen, joan eta etorri oinez egiten zen. Pieza pare bat dantza eginda, berandutu aurretik, Marindik gora lasterka joaten ginen. Baina Marindik ere ezin joan hango sagar eta okaran helduak hartu barik. Hantxe geldialditxo egin eta Otxandiora", kontatzen digute bi gizonak. Orain ere marindarrak otxandiarrak beldur izaten ei dira Amabirjinaren Egunean: "Arboletako frutak Otxandion baino helduago egoten dira beti Marinen eta Gatzagan. Oraindik ere ezin izaten gara Maringo ermitatik pasatu hango okaran txikiak probatu barik, bai-

na ez da egiten lehen egiten zen txikiziorik".

Betidanik fede handia izan ei diote otxandiarrak Dorletako Amabirjinari: "Gazteak, orain, ez dira fedeagatik joango Gatzagara. Baina gero eta gehiago joaten dira. Ume txikiak Gatzagara oinez joateko noiz koskortuko zain egoten dira. Ez dakigu zerk bultzatuta, baina Gatzaga Egunak sustrai sendoak ditu oraindik ere Otxandion. Beti izan da bai nagusi bai gazte eta bai txikiendako ere erreferentzia", esan digu Doloresek.


Gatzagatik, ongi etorri, otxandiar guztiok!

"Ume txikiak ere, Gatzagara oinez joan ahal izateko, noiz koskortuko zain egoten dira. Beti izan da egun hori erreferentzia"

GATZA-GAIN Jatetxea

Ondo ibili Andramaixetan!

943 71 55 22 LEINTZ GATZAGA



FAGOR



ELEKTRATRESNA TXIKIKO NEGOZIOA

Aingerugarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)

LEHENAGO

ERROMERIA HANDIKO HERRIA IZATEN ZEN GATZAGA

Lehenagoko Andramaixen berri jakiteko, M.C. Arana eta haren senar Benedito Elkorobarrutiarekin izan gara. Mila esker zuen laguntzagatik.

Andramaixa hirugarrena izaten zen egunik onena



Pontxea edan eta gero sueltoan egiten zuten kaleetan

Goizean, hirugarren egunean, Aureskua dantzatzeko zieten ezkondu gabeko mutilek neskei. Iluntzean, berriz, ezkonduak egiten zieten Aureskua emazteei. Goizeko dantzaren ondoren, Udalak pontxea banatzen zuen. Indarberrituta eta gorputzak ondo berotuta, kaleetan barrena ibiltzen ziren herriko gazteak dantza sueltoan. J.M. Legorburu, J. Arana, A. Agirregabiria eta A.M. Gezalaga ageri dira argazkian.

Sueltoan egin eta gero, berriz, atalaitakua nagusi

Gazteek egun osoa ematen zuten, jai giroan, kalean gora eta behera. Pontxea edan eta sueltoan egin ondoren, eta bazkal aurretik, bermuta edateko ohitura zegoen. Lehen, orain baino taberna gehiago zegoen Gatzagan, eta guztietan geldialditxoak egin barik, ezin aurrera egin. Taberna batetik bestera, danbolinaren soinua lagun, atalaitakuan joaten ziren herriko gazteak.



Lanaz ahaztuta, jai girora!

M.L. Ibartzabalek, C. Fdez. de Arroiabek, M.C. Aranak eta A. Beitiak ere dotore-dotore jantzi eta kalean ematen zuten eguna. Gasteizen neskame ibili arren, ezin uko egin Andramaixetako hirugarren egunari.



Musikari ezin hobek egoten ziren

Aretxabaleako Demetrio danbor jotzaileak urtetan animatu zituen Gatzagako kaleak. Baina batek baino gehiagok gogoan du Isidro Larrañaga soinu jotzaile tolosarra ere. Orkestra onak izaten ei ziren beti.



Plazatik Dorletara, lasterka

Urtero egiten zen lasterketa. Plazatik Dorletara buelta pare bat eman behar izaten zuten, korrika, herriko eta kanpotik etorritako mutilek. Neskek, prakak janztea debekatuta izaten zuten, ezin parte hartu.

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORATZA

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineke informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Oihulari Clownek irekiko du Tortolis ludoteka

AMAGOIA LASAGABASTER

Bukatu dira oporrak, baina oraindik herriko gaztetxoek jolasean jarraitzeko aukera izango dute. Tortolis ludotekak datorren eguaztenean zabalduko du egoitza, baita bazkide egiteko izenemate epea ere. Matrikulazio kanpaina Oihulari Clown taldearen ikuskizunarekin jarriko dute abian.

Virginia Imaz Oihulari Clown antzerki taldeko partaidearen laguntzarekin emango diote hasiera ludotekako ikasturte berriari. Aurten ere Tortolis gunea antolatu du Axtroki euskara elkarteak, herriko ume eta gaztetxoek jolas egin dezaten.

Irailaren 11n, hau da, datorren eguaztenean, Tortolis ludotekan egingo duten festa txiki batekin emango diote hasiera ikasturteari. Egun horretan, hiru eta hamabi urte bitarteko gaztetxo eta ume guztiak gonbidatuta daude Virginia Imazek, Oihulari Clowneko aktoreak, eskainiko duen ipuin saiora. Gero, ikusle txikiak, ludoteka gustuko badute, behintzat, urtebeterako bazkide izateko aukera izango dute.



Aurten ere askotariko jokoak eginez igaroko dute arratsaldea gaztetxoek.

Matrikula egiteko nahikoa izango da gaztetxoaren edo umearen datuak eta gurasoen kontu korronte zenbaki bat ematea. Axtrokiko bazkideek 22 euro

ordaindu beharko dituzte. Gainerakoak, aldiz, 28 euroren truke matrikulatuko dira. Gainera, anai-arreba bakoitzarengatik hiru euroko beherapena egingo dute.



Udan jende gutxi ibili da kanpoko igerilekuan

Kanpoko igerilekuak laster itxiko dituzte; irailaren hamabostean, hain zuzen ere. Aurten, urtero moduan, hiru hilabetez izan da Eskoriatzako solariuma zabalik. Hala ere, inoiz baino bisitari gutxiago izan ditu. Errua, jakina, eguraldiak izan du. Eneritz Belokik eta Aritz Elortzak, kanpoko igerilekuko begiraleek, ez dute aurten lan askorik egin. Dozena bat egunean bakarrik azaldu da eguzkia. Gauzak horrela, aurten, barruko igerilekuak izan du arrakasta handiagoa. /A.L.

LABUR

Idoia Manterola añorgarrak egingo ditu aurrerantzean Udaleko itzultzaile lanak

Idoia Manterola (29 urte) añorgarra da Udaleko itzultzaile berria. Maiatzean argitaratu zuten bitarteko itzultzaile lanpostua betetzeko lehiaketa. Hainbat lagun aurkeztu ziren azterketetara, eta azkenean, Idoiak lortu du itzultzaile lanpostua. Hemendik aurrera, goizez izango da udaletxean, eta, batez ere, gaztelaniazko tesu eta agiriak itzuli beharko ditu euskarara.

Idoiak oraindik ez du aukera handirik izan herria ezagutzeko. Hori bai, berehala konturatu da udaletxea bera eta herriaren zati handi bat, behintzat, zaharberritzen ari direla.

Olazar erretiratu elkartekoak ikasturte berria gogo handiz gertatzen hasi dira

Olazar erretiratu elkarteko bazkideek joan den martitzenean egin zuten ikasturte berria antolatzeko lehenengo batzarra. Oporraldian lasaialditxo hartu ondoren, gainera, indarberrituta daude herriko erretiratuak. Datorren astean, irailaren 12an, izango dute lehenengo ekitaldia. Saioa Lasak *Memoriaren sekretuak* izeneko berbaldia egingo du Olazarren, 17:00etan.

Datozen hilabeteotarako, berriz, erretiratu herri bazkaria eta Murtziarako bidaia bat antolatzea dute esku artean.

Abuztuan Olazar kalean izandako gas isurketak ez du aparteko ondorioz izan

Abuztuan susto ederra hartu zuten Olazar kaleko hainbat bizilagunek. Hilaren 19an, gas propano isurketa gertatu zen eta ondorioz ordubate luzez Olazarko auzotar batzuk etxetik kanpo egon behar izan ziren. Edozelan ere, eta zorionez, hori izan zen guztia. Matxura izan zuen pieza berehala aldatu, eta arazo barik igaroko dute abuztua auzo horretakoek. Alkatearen esanetan, inoiz ez da horrelakorik gertatu eta, gainera, Udaleko lana ez bada ere, badauki beharrezko azterketak behar den garaian egiten direla.

San Juan kaleko bizilagunek V. bilera egingo dute irailaren 14an

San Juan kaleko festak ospatuko dituzte irailaren 14an Eskoriatzan, eta ez azkenaldian egunkari batek iragarri moduan hilaren 2an. Bi urtean behin bakarrik egiten duten jaia da, eta San Juan kaleko auzotarrek ez dute ondo pasatzeko aukera galtzen. Aurten, San Juan kalean jaiotakoek edo han bizi direnek V. bilera edo herri bazkaria egingo dute. Parte hartzeko 18 euro ordaindu beharko dituzte interesatuek. Antolatzaileek kontu korrontea ireki dute Euskadiko Kutxan, izena eman eta ordainketa egiteko.


Irailan hiru erromesalditan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek

Hiru asteren bueltan herritarrek beste horrenbeste erromesaldi egiteko aukera izango dute. Lehena zapatuan egingo dute, Bizkaira, Unbeko Amabirjina bisitatzera, hain zuzen ere. Bigarren erromesaldia domeka honetan egingo dute, Dorletara, Gatzagako jaiak aprobetxatuta. Erromesaldia parrokiak antolatu du eta izena eman dutenek 10:30ean edo 11:15ean hartu ahal izango dute autobusa Dorletara igotzeko. Azkenik, hilaren laugarren domekan, hau da, irailaren 22an, Arantzazuko Santutegirako erromesaldia antolatuko dute parrokiako lagunek.

FAGOR



Fagor Ederlan, S.Coop



**MONDRAGON
AUTOMOCION**

AUTOENDAKO OSAGIAK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00



DORLETA

Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



A T E K N I A P A E X T E

Mountain Hard Wear
Millet
Ternua
Salewa
Solo
Tuckland
Salomon
Peltz
Boreal
Asolo
Ferrino
Vaude
Garmin
Magellan
Neak Peak
Coleman
Grivel

Rossignol
Atomic
Fischer
Nordica
Lange
Head
Salomon
Dynastar
Skitrab
Lowa
Scarpa
K2
Mitre

Stress Out
Bih
Luntur
Oxbow
Think Pink
Lansport
Hotcha



www.forumsport.com

SPORTLAND

FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA


Garibai Etorbidea, 2-6
20500 Arrasate. Gipuzkoa
Tef. 943 77 30 72

GRUPO **RKUZ**

1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

